

Kaixo,

Idatzi honen bidez zuengana jo dugu Orereta Palestinarekin Herri dinamikaren izenean. Lau hilabete beteko dira Israelgo estatu sionistak Palestinako herriaren kontrako inoizko erasorik bortitzena abiatu zuenetik.

Estatu sionistak Palestina okupatu zuenetik hamaika eraso eta bidegabekeria jasan ditu, besteak beste, lurren lapurreta eta behartutako desplazamendua, okupazioa, apartheid, sarraskiak, atxiloketak... Finean, Palestina eta palestinarrak desagertzea da estatu sionistaren helburu behinena, eta azken hilabeteetako, genozidioa da edozeinen begietara. Non daude NBE (Nazio Batuen Erakundea) eta beste Mundu mailako erakundeak? Non Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuak? Non daude giza eskubideak babesteko hitzartutako itunak? Non daude Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak?

Palestinako herriak estatu sionistaren okupazioa eta erasoeri aurre egiteko edozein herrik zilegi duen eskubidea erabili du, hau da autodefentsa eta erresistentzia eskubidea. Argi eta garbi utzi digute ez daukatela beste irtenbiderik: lurra, etxeak, uztak, bizitza bera galdu, edo beraiena dena, erabakitzen duten moduan defendatzea, Munduko edozein herriri aitortzen zaion autodefentsa eta erresistentziarako eskubidea -Nazio Batuen Erakundeak hala jaso du 3.070 erresoluzioan- baliatuta.

Gaiarekin sentzibilizatuta eta herrien arteko elkartasun internazionalistan sinisten dugun norbanakoak gara herri dinamika hau osatzen dugunok, eta gure helburua, Palestinako herriari elkartasuna adierazi eta pairatzen ari den sarraskia salatzea da. Horri begira, hilabete hauetan gure herrian hainbat ekintza antolatu ditugu: elkarretaratzeak, palestinako banderak banatu haien presentzia zabaltzeko, kotxe karabanak, hitzaldiak, udalean aztertu eta EH Bildu eta Elkarrekin Erreteriak babestuta eta PSE-EE, EAJ eta PPK kontra bozkatu arren aurrera egin duen mozioa

Antolatutako ekintza guztietara, herritar ugari bertaratu da. Horrek adierazten du, gure herriak, Palestinako herria pairatzen ari den eraso bortitzaren aurka dagoela; Estatu sionistak berehala utzi behar duela bertan behera Palestinaren aurkako genozidioa, okupazioa eta apartheid politika ozen eskatu dugunak ere hamaika gara. Genozidioarekin jarraitzen du, ordea, eta azken hiru hilabete hauetan 25.000tik gora palestinarrak erail ditu; horien artean asko eta asko, haur eta nerabeak dira, 10.000tik gora.

Egoera honen aurrean manifestazio jendetsua antolatzea erabaki dugu. OTSAILAREN 17an, larunbatarekin, egingo dugu arratsaldeko 17:00etan Herriko Plazatik abiatuta. Idatzi honen bidez, zuen erakundearen atxikimendua eskatu nahi dizuegu. Halaber, manifestazio handi horretan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, eta bide batez, zuen komunitatearen artean mezua zabal dezazuen eskatu ere. Manifestaziorako deialdia egiteko agerraldi masiboa egin nahi dugu, bestalde, eta hori ere ahalik eta jendetsuena eta anitzena izatea nahi genuke. Hori horrela, agerraldi horretan parte hartzeko gonbidapena egiten dizuegu. Agerraldi hori, otsailaren 12an egingo dugu 19:00etan Herriko Plazan.

Aldez aurretik mila esker

Orereta, 2024ko urtarrilaren 24a.
ORERETA PALESTINAREKIN.

Atxikitze sinadura:

